



Ficciones y realidades

Arkitekturako argazkilaritza.

Uzt. 16 - Uzt. 17 2025

Kod. A04-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 16 - Uzt. 17 2025

Kokalekua

EAI/IAE (Euskadiko Arkitektura Institutoa/Instituto de Arquitectura de Euskadi)


Hizkuntzak

Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Argazkigintzak bilakaera nabarmena izan du ia berrehun urte hauetan. Pixkanaka, dokumentu irudikapen soiltzat jotzetik, inguratzen gaituen errealitatea aztertzeke eta hautemateko modu berriei ateak irekitzera igaro da. Orain gure kultura bisualak besarkatzen dituen aukera berrietarantz zabaltzen da, non ingurune fisikoek, digitalek eta birtualek definitzen duten gure errealitate berria. Horretan guztian, eta zalantzarik gabe, arkitekturak eginkizun garrantzitsua du.

Hastapenetan, arkitektura modernoak aliatu ezin hobe identifikatu zuen argazkigintzan, estetika abstraktuko narratiba bisuala mundu osoan transmititzeko, eraikitako ingurunea eta gure hiriak ulertzeko modua definituz. Ordutik, arkitektoak eta argazkilariak, eskutik hartuta, argazkigintzaren potentzialaz jabetu dira, balio dokumentalaz harago.

Uda Ikastaro honetan, arkitekturako argazki eta dokumentazioaren esplorazio tangential samarra proposatzen da, arkitekturako argazkilari profesionalen ikuspegi pragmatikoena eta artista bisual batzuek egindako hurbilketa kontzeptuala uztartuz. Biak dira, arkitektura argazkilariak eta argazkian ateratako arkitekturak, programan zehar garatzen diren elkarrizketen objektu. Hitzaldiak, mahai-inguruak eta tailer praktikoak uztartzen dira, adituak eta argazkilari ospetsuak buru, problematika bisual garaikidearen ikuspegi globala eta garaikidea eskainiz.

Uda Ikastaro hau obren irudikapen bisualaren arteko harremanei buruz gehiago jakin nahi duten arkitektoei zuzenduta dago, baita argazkilariei ere, bai izaera orokorrekoak, bai argazkigintzan espezializatuak. Interes berezia du, halaber, ikusizko arteen, irudikapenaren eta pentsamendu arkitektonikoaren arloan interesa duten arkitektura ikasleentzat.

Helburuak

Ikasleei, arkitektoei eta argazkilariei praktika arkitektonikoaren eta haren irudikapen fotografikoaren arteko loturaren ulermen globala helaraztea.

Adibide garaikideak eta argazkigintzara hurbiltzeko moduak aztertzea. Estatuko eta nazioarteko argazkilariek beren lanari buruzko aurkezpenak eskainiko dituzte, egileengandik jakintza zuzena lortuz.

Arkitekturaren eta argazkigintzaren arteko harremanean interesa duten hainbat diziplinatako arkitekto, argazkilari eta profesionalen artean harreman sarea sortzeko aukerak ematea.

Lan metodologiari dagokionez, tailerren eta hitzaldien bidez ikasitako kontzeptuekin profesionalak gaitzea, horiek gero beren proiektuetan baliatuz.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikokoak



Euskadiko
Arkitektura
Institutua
Instituto
de Arquitectura
de Euskadi

Zuzendaritza



Martin Echeverria Larrañaga

Euskadiko Arkitektura Institutua, Coordinador de exposiciones y programas

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-30 ARTE	2025-07-16 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	34,00 EUR
Orokorra	-	48,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	41,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	34,00 EUR

Kokalekua

EAI/IAE (Euskadiko Arkitektura Institutoa/Instituto de Arquitectura de Euskadi)

Convento de Santa Teresa Andereño Elbira Zipitria Kalea 1, 20003 Donostia

Gipuzkoa